

TERRORISMOAREN BIKTIMAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

BALIO ETIKOETARAKO
UNITATE DIDAKTIKOA

DBH 4



ARGITARATZAILEAK

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko
Zuzendaritza Nagusia. Barne Ministerioa

Ebaluaziorako eta Lurralde Lankidetzarako
Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza eta
Lanbide Heziketako Ministerioa

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako
Zentroa

Fundación Víctimas del Terrorismo

TESTUAK

Ricardo Arana Mariscal

DISEINUA

Dr. Drumen

ARGAZKIAK

Covite

Diario de Burgos

EFE

El Correo

El Diario Vasco

Emilio Roselló Tormo

ETB

Moreno Asla Familia

José Ibarrola

Reuters

Zulet

Azaleko ilustrazioa: Zulet, 1995/01/25

Barne Ministerioaren NIPOa:
126-20-003-X

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako
Ministerioaren NIPOa: 847-20-076-3

Gai honetan pertsona guztientzat funtsezkoa den kontu bat jorratuko duzu: giza eskubideak. Kazetaritza testuak landuko dituzu bereziki: albisteak, elkarrizketak, erreportajeak irakurri, ikusi eta entzungo dituzu. Beste arlo batzuetan ikasitakoa erabili ahal izango duzu: Historia, Filosofia, Hizkuntza... Izan ere, kazetari baten berezko lana egingo duzu, proposatutako gaiari buruzko erreportajea egingo



baituzu: giza eskubideen urraketen biktimak (eta horiek definitzen dute, hain zuzen ere, gure giza izaera). Oso garrantzitsuak dira eskuratutako ezagutzak, zure emozioen eta sentimenduen azterketa, giza eskubideen urraketan (zehazki, terrorismoarenak) biktimen aurrean egiten dugunari buruzko hausnarketa, bai eta haien egindako oroimen, justizia, egia eta erreparazioaren eskaera ere.



José Ibarrolaren marrazkia.

04

Sarrera saioa

Eskubideak dituzten pertsonen mundu bat

Jarduerak

08

1. saioa

Terrorismoa

Nola erasotzen die terrorismoak giza eskubideei?

Protagonistak

Jarduerak

12

2. saioa

Biktimak

Mugatu al daitezke pertsonen eskubideak terrorismoaren aurka borrokatzeko?

Erantzun demokratikoa

Jarduerak

16

3. saioa

Besteak

Nola erreakzionatzen dugu terrorismoaren eta haren biktimen aurrean?

Herritarren erantzuna

Jarduerak

24

4. saioa

Eta ni?

Proposamen honi buruzko azalpen labur baina beharrezkoak

SARRERA

SAIOA

*Agustín Ibarrolaren monumentua terrorismoaren biktimei Gasteizen.
Argazkia: Emilio Roselló Tormo.*



*Eleanor Roosevelt, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren gaztelaniazko bertsioarekin. 1949ko azaroa.
Argazkia: <https://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights>*

ESKUBIDEAK DITUZTEN PERTSONEN MUNDU BAT

II. Mundu Gerrak ekarri zuen tragedia izugarriaren ondoren, 1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (GEAU) onartu zuen, herrialdeen eta pertsonen arteko harremanak markatzen dituen testua.

Adierazpenak oraindik amaitu ez den aurrerapen etikoko prozesu bat ireki zuen gizateriarentzat, eta prozesu horretan, gutxienez, eskubideen hiru "belaunaldi" ikusten dira. "Lehen belaunaldiko" giza eskubideak askatasun zibil eta politikoei dagozkie, eta 1789ko Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenean dute abiapuntua. Askatasunaren defentsa da bere nortasun ikur nagusia.

"Bigarren belaunaldikoak" bezala ezagutzen direnek zeri-kusi handiagoa dute pertsonen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelekin. Berdintasun-printzipioan oinarritzen dira, eta oinarritzkoak dira lehenak posible egiteko, eta, haiek bezala, 1948ko Adierazpen Unibertsalean sartuta agertzen dira.

Gainera, gaur egun "eskubideen hirugarren belaunaldi" bat aipatzen da, joan den mendearen azken herenetik aurrera sustatu zirenak aipatzeko. 1948ko Nazio Batuen adierazpen formaletik harago kokatzen dira, eta nazioarteko komunitatea osatzen duten herri guztien errespetua, aurrerabide soziala eta bizi maila sustatu nahi dute. Elkartasun kontzeptuari lotutako eskubideak dira, eta horien artean daude bakerako, garapenerako edo ingurumen iraunkor baterako eskubidea.

Ez dago besteak baino garrantzitsuagoa den eskubiderik, eta denak elkarri lotuta daude. Berme juridiko unibertsalak dakartzate, eta pertsona guztiak babesten dituzte edozein gizartetan. Haien garrantziaz jabetzeko modurik argiena, hain zuzen ere, haiek norbaiti ukatzen zaizkionean da. Horregatik, hobeto antzematen da haien garrantzia, haiez gabetua izan den norbaitengandik hurbil gaudenean, bidegabekeria baten biktima batengatik hurbil. Xabier Etxeberria filosofoak dioen bezala: "giza eskubideen benetako erreibelazioa, direna eta suposatzen dutena, ez zaigu abstraktuan ematen, gure bizipenean ematen zaigu, edo besteenganako pertzepzio empatico-moralean, eskubide horien ukazioa dela eta".



GOGOETA-JARDUERA

Aurreko irudia GEAUren 3. artikuluko testuarekin batera dator, Nazio Batuen edizio ilustratu batean: "Gizabanako orok du bizitzeko, askatasunerako eta bere pertsonaren segurtasunerako eskubidea". Zure ustez, zer adierazten du irudi horrek?

Bizitza identifikatzen erraza dirudi, baina askatasuna edo segurtasuna defini dezakezu?

Ezagutzen duzu bidegabeki eskubide horiek kendu zaizkion inor?

GAIRA HURBILTZEKO JARDUERA

Nola lortuko zenuke GEAU errespetatuagoa izatea zure ingurunean?

Saiatu iragarki bat diseinatzen GEAUjeko artikulua hori irratian, telebistan, Interneten edo sare sozialetan zabaltzeko.

1.

SAIOA





ETAk 11 pertsona hil zituen (horien artean bost neskatu) Zaragozako kuartel-etxearen aurkako atentatuan (1987/12/11). Argazkia: EFE.

TERRORISMOA

Terrorismoa pertsona, talde edo erakundeen aurka erabiltzen den legez kanpoko indarkeria mota bat da, beldurra eta izua (ikara) eragiteko, erabakiak baldintzatzeko eta helburu jakin batzuk lortzeko, normalean izaera politikokoak. Pertsonen giza eskubideak urratzen ditu, gorrotoaren kultura garatzen du eta gizartearen funtzionamendu demokratikoari erasotzen dio.

NOLA ERASOTZEN DIE TERRORISMOAK GIZA ESKUBIDEEI?

Immanuel Kant filosofoak adierazten zuen pertsonak helburu bat direla berez, ez beste gizabanako batzuen erabileretarako bitarteko bat, horrek gauza soil bihurtuko bailituzke. Hala ere, terrorismoan pertsonak subjektu izateari uzten dio, objektu bihurtzeko. Gizaki orok izan behar dituen duintasuna eta eskubideak kentzen dizkio, erakunde terroristaren bitarteko bihurtzeko, bere helburuak lortze aldera.

“Etakideak ez dira sadikoak; beren seme-alabak beste edozeinek bezainbeste maite dituzte, eta haien manifestuak bizitzari eskainitako kantuz beterik daude. Gertatzen dena da beste seme-alabak, biktimenak, ez direla existitzen. Tiroak “kuartel baten aurkakoak” dira, ez bertan bizi diren pertsonen aurkakoak. Hizkera etarra eufemismo-brodatu bat da: “Hemen bidaltzen dizuet txakurren (txakurrak; polizien ordez) autoei buruzko informazioa, ekintzaren bat (ekintzak) egiteko: Egiaztatu, eta, ahal duzuenean lapa batzuk (bonba atxikiak) jarri; izan ere, azkenaldian ikusi duzuenek, horrelako ekintzek oso urduri jarri dute etsaia. ETAren zuzendaritzak Bizkaia komandoari 1992ko urtarrilean idatzitako gutuna da. Etsaia urduri jarri zuten ekintza horien artean dago bi hilabete lehenago Fabio Morenoren, guardia zibil baten bi urteko semearen, erailketa”.

Patxo Unzueta, kazetaria



Coviteren errearen mapa: <https://mapadelterror.com>

Tamalez, giza eskubideen urraketa hori munduko zati handi batean gertatzen da, baita zugandik oso gertu ere. Datu beldurgarri bat dago: Espainian bakarrik, ia 1.500 lagunek galdu dute bizia 1960tik ekintza terroristen ondorioz.

Terrorismoak eragin zuzena eta negatiboa du giza eskubideen egikaritzan; batez ere, bizitzeko eskubidean, askatasunean edo osotasun fisikoan, baina, horrez gain, erakunde demokratikoak, herrialdeen arteko harremanak eta garapen sozial eta ekonomikoak ezegonkortzen ditu. Guztion arazoa da, egungoa eta larria.



PROTAGONISTAK

Giza eskubideen urraketei heltzeko, beti hartu behar da kontuan beste batzuen indarkeria boluntario, kontziente eta bidegabea jasan duten pertsonen egoera. Indarkeria terroristaren kontakizun bat egingo bagenu bere biktimei protagonismoa eman gabe, azkenean indarkeriazaleen, biktimarioen kontakizun bat baino ez genuke egingo.

Terrorismoak helburu politikoak bilatzen ditu ia beti, eta, horien aurrean, era inpartzialean lan egin behar da, baina ez era neutralean, ekintza giza eskubideen aurkakoa bada. Daniel Innerarity filosofoak dioen bezala, "kontua ez da erasotzaileen eta erasotuen arteko itun bat lortzea, indarkeriaren eta demokraziaren arteko erdigune moduko batean topo egiteko". Horregatik, ikusle pasibo, bihozgabe edo hotzepela izan gabe lan egin behar da. Pertsonen eskubideetan ez dago neutraltasunik. Inoiz ez dago erdigunerik biktimen eta borroaren artean.

ETA izan da Espainian kalte gehien eragin duen talde terroristata, baina biktima gehien eragin dituen ekintza 2004ko martxoaren 11ko atentatu jihadistaren eskutik etorri zen.

2004ko atentatuen ondoren, Bernardo Atxaga idazleak poema bat idatzi eta Jabier Muguruzak musikatu egin zuen, eta haren ahapaldi nagusiak honela dio:

Bizitza bizitza da,	La vida es la vida,
handiena;	y es lo más grande;
kentzen duenak	quien la quita
kentzen du dena.	lo quita todo.

Abestia honako helbide honetan dago eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=3fvtQ31Hstk>

Letra osoa honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.jabiermuguruza.net/abenduak-29-letras.html>


IRUDIA

Argazkia Fabio Moreno Aslari dagokio. ETak bere aitaren autoan jarritako bonba batek eztanda egin ostean hil zen, Bizkaiko Erandio herrian. Atentatua gertatu baino hiru egun lehenago, bi terrorista Antonio Moreno Chica guardia zibilaren (Fabioren aita) etxera joan ziren. Haren autoa aurkitu zuten, eta haietako bat zelatan zegoen bitartean, besteak kopilotuaren eserlekuaren azpian jarri zuen bonba. 1991ko azaroaren 7an Antoniok bere bi seme-alaba bikiekin igerilekura joateko asmoa zuen. Autoan sartu aurretik, autoaren azpialdean begiratu zuen bonbarik ote zegoen egiaztatzeko, baina ez zuen ezer arrarorik ikusi. Ondoren, denak ibilgailuan sartu ziren. 16:45ak aldera, bihurtune batean aktibatuta zen bonba. Fabio bertan hil zen, eta bere anaia Alexanderrek erredurak izan zituen hanka batean, eta tinpanoa zulatu zitzaion. Bere aita, 852 egun ezindua egon zen, eta, ondoren, bere lanbidean aritzeko baliaezintzat jo zuten. Etakideek bazekiten Antoniok trenez egiten zuela joan-etorria lanera, eta bere familiarekin batera bakarrik erabiltzen zuela autoa. Bizkaiko Derioko hilerrian lurperatu zuten Fabio. Urte horretan, ETak zazpi haur hil zituen (bat Donostian, bost Vic-en eta bat Erandion) eta beste adingabe batzuk zauritu zituen. Fabio Moreno Aslak 2 urte zituen, eta Bilbon jaioa zen.

Iturria: <http://www.rtve.es/memoriadevida/detalle.php?id=699>

ETA (Euskadi Ta Askatasuna) Franco jeneralak Espainian ezarri zuen diktaduraren azken urteetan sortu bazen ere, bere jarduerak terrorista handiena demokrazia garaian gertatu zen. Fabio Morenoren hilketaren kasua 1968 eta 2010 artean erakunde terroristak burututako 800 hilketen artean bat gehiago baino ez da. Urte batzuk geroago, horrela kontatzen zuten Antoniok, bere aitak, jasandako atentatua: "Autoaren atzeko aldean irekitzean Alex atera nuen, ondo baitzegoen. Fabio ateratzera joan nintzenean izan zen txarrena, zatika hartu behar izan bainuen. Ez dakizu nola eutsi, leku guztietatik erortzen zaizulako. Bonba lehertu zenean, tinpanoak hautsi zizkidan. Ez nuen ezer entzuten, ez nekien zer gertatzen ari zen (...). Pentsatzen duzun lehenengo gauza da zergatik nire semeari eta ez niri, baldin eta teorien filmaren gaiztoa ni bantintzen, nolabait esatearren, guardia zibila izateagatik. Denboraren poderioz konturatzen zara ez dutela zure semeagatik edo zuregatik egin, min egiteagatik baizik".

(Antonio Morenoren, Fabioren aitaren, adierazpenak, Iñaki Artetaren *Trece entre mil*, film dokumentaletik ateratakoak) https://www.documaniatv.com/politica/trece-entre-mil-video_9ef0fda5e.html (1:12:58)



Fabio Moreno. Argazkia: familiaren artxiboa.

GOGOETA-JARDUERA

Zure ustez, nor da (edo nortzuk dira) erreportaje honetan biktima(k), eta zer uste duzu kendu diotela/dietela atentatu honekin? (Zure hausnarketarako erabil ezazu GEAU).

JARDUERAK ALBISTEekin

Ikertzeko, hainbat aukera dituzu; besteak beste, Fernando Buesa Fundazioaren datu basea, Espainian izandako ekintza terroristei buruzko prentsako informazioak biltzen dituena: <http://extranet.fundacionfernandobuesa.com>

Aukeratu albiste bat eta laburbildu paragrafo batean: zer, nork edo nortzuk, noiz, non, nola eta, batez ere, zergatik.

2.

SAIOA





Quedarán en la memoria (2012).
José Ibarrolaren margoa.

BIKTIMAK

Terrorismoak pertsonen osotasunaren edo askatasunaren aurka egiten du, baita herritarren segurtasunaren, egonkortasun politikoaren edo demokratikoki aukeratutako gobernuen aurka ere. Horregatik guztiagatik, erakundeek ekintza terroristen aurrean jardun behar dute. Baina ba al dago mugarik horretarako?

MURRIZTU AL DAITEZKE PERTSONEN ESKUBIDEAK TERRORISMOAREN AURKA BORROKATZEKO?

Ekintza terroristak prebenitzeko edo haiei aurre egiteko eta herritarrak babesteko, erakundeek beti dituzte muga argiak: "berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzeaz gain, mugek legean aurreikusita egon behar dute, helburu legítimo bat edo gehiago zehaztu behar dituzte, eta beharrezkoak izan behar dira gizarte demokratiko batean".

Muga horien ondorioz, adibidez, ezin da pertsona bat arbitrarioki eta mugarik gabe atxilotu, nahiz eta atxilotetaren helburua ekintza terrorista bat geldiaraztea edo ikertzea izan, dela eskuin muturrekoa, ezker muturrekoa, nazionalista erradikala, jihadistista edo dela beste edozein.



ERANTZUN DEMOKRATIKOA

Erakundeek pertsonak errespetatzeko eta babesteko jardun behar dute, baina terrorismoari aurrea hartzea eta erantzutea zilegi eta demokratikoa denaren esparruan gertatu behar da beti. Horregatik, ezin dira sustatu edo babestu giza eskubideen urraketa dakarten arauak, hala nola tratu ankerak edo apalgarriak, edo "gerra zikina" izenez ezagutzen diren praktikak (terroristei erasotzeko praktika terroristak erabiltzea).

Espainiak Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) taldeak 1983tik 1987ra bitartean egindako atentatuen oroitza

krudela du. Zuzenbide-estatua sendotu egin da Espainian, baztertu egin ditu jardunbide bidegabe horiek, eta hainbat esparrutako instantzia juridikoen aurrean erantzuten du.

Atentatu terroristak batean jasandako indarkeria gorabehera (jasan dutenentzat oso kolpe gogorra da), terrorismoaren biktimek, nahiz eta askotan aitortu duten sentimendu negatiboak beteta egon direla, ez dute babestu jasandako indarkeriari emandako erantzun ez-zilegi eta legez kanpoko-rik, eta konpromiso zibiko eta demokratiko handia erakutsi dute.

IRUDIA

Erresilientzia, pertsonak tragedia baten ondoren beren burua berreraikitzeke duten gaitasuna, oso ezberdina da gizakiengan.

Alex Morenok, Fabioren anaia bikiak, pentsatzen du indarkeriak ez duela "inora eramaten". Terrorismoaren biktime askok antzeko hausnarketak adierazten dituzte.

"Justizia sentimendu gehiago dut gorrotozkoa baino. Gorrotoak ez zaitu pertsona gisa hazten laguntzen. Justiziak, aldiz, bai". Iñigo Pascualen hitzak dira. 17 urte zituen aita, Ángel Pascual ingeniaria, hiltzen ikusi zuenean, bi terroristek 1982an metrailatua.

Litekeena da, halaber, atentatuaren biktime talde terroristak bateko kide izatea, baina antzeko egoera batean hil dute, bai kontrako ideologia duen talde batek, bai kide ohiek, erakundetik bereizi ondoren. Terrorismoaren biktimek jo al dezakegu atentatu bat jasandakoa norbait, baina beste pertsona batzuek ere indarkeria terroristak erabili duena?

Pertsona batek izan duen erasotzaile izaerak ez du indarkeria bidegabe baten biktime izaera baliogabetzen, halakorik gertatzen bada, eta pertsona horrekiko errespetu, elkartzun eta justizia irizpide berdinak behartzen gaitu, jasan duen biktimearen plano horretan.



ETBk Alex Morenori egindako elkarrizketa: Nire gurasoek gorrotorik gabe hazi naute: <https://www.youtube.com/watch?v=aoBebocEuqU>

GOGOETA-JARDUERA

Esaldi bakarrean laburbildu Alex Morenori egindako elkarrizketak iradokitzen dizuna.

Jasandako bidegabekeria batek dilema pertsonal handi baten aurrean jartzen du biktima. Víctimas del Terrorismo Fundazioak ia bederatzi minutuko pasarte bat zabaldu du Interneten, Pedro Mari Bagliettoren (haren anaia, Ramon, ETAk erail zuen) eta nagusiki ikasleez osatutako talde baten arteko elkarrizketa laburbiltzen duena. Elkarrizketa horretan biktimengan nagusi diren emozioak, sentimenduak eta ondorioak agertzen dira. Nola baloratzen duzu biktima honen erantzuna? <https://fundacionvt.org/pedro-mari-baglietto-en-el-colegio-calasancio>.

Zure ikerketarekin jarraitzeko, beste testigantza batzuk ikus ditzakezu, Víctimas del Terrorismo Elkarteak emandakoak: <https://avt.org/es/testimonios>

Gainera, antzeko beste elkarrizketa batzuk dituzu Youtuben: <https://www.youtube.com/user/avt/videos>

JARDUERAK ELKARRIZKETEKIN

Elkarrizketatuek emandako informazioa jaso, eta elkarrizketa bakoitzari izenburua jarri. Begiratu keinuak: zerk ematen dizu atentzioa?

16

3.

SAIOA

Habida cuenta de los datos que obran en nuestro poder sobre los datos que obran en nuestro poder sobre los millones de pesetas, o en su defecto en billetes usados.

La Organización Socialista Revolucionaria Vasca de Liberación Nacional, Euskadi Ta Askatasuna, se dirige a Vd. para notificarle la obligación que dados sus recursos financieros, tiene contraída para con el desarrollo del proceso de liberación nacional y social de Euskal Herria. A tal efecto, ponemos en su conocimiento nuestra decisión de exigirle una contribución económica obligatoria e inapelable en concepto de aporte financiero afín de hacer frente a las necesidades que dicho proceso genera.

habra de ponerse en contacto con la policía española en el plazo de 15 días a partir de la notificación. Sobre decirle que el conocimiento de la policía española de la contribución, de lo contrario con consecuencias dolorosas que su actuación

datos que obran en nuestro poder sobre los millones de pesetas, o en su defecto en francos.

axigencia que le formulamos, lejos de ser personal o colectivo, no tiene otro fin que el de garantizar el desarrollo de una sociedad vasca libre, justa y solidaria, inequívocamente corroborado por la experiencia de cada uno de los militantes de nuestra Organización, quienes como bien sabe Vd., pagan con sus propios años de lucha y cárcel y aún con su propia vida su

de ponerse en contacto con la policía española en el plazo de 15 días a partir de la notificación. Sobre decirle que el conocimiento de la policía española de la contribución, de lo contrario con consecuencias dolorosas que su actuación

tacto, le saludamos atentamente.

Si que decir tiene que la exigencia que le formulamos, lejos de ser personal o colectivo, no tiene otro fin que el de garantizar el desarrollo de una sociedad vasca libre, justa y solidaria, inequívocamente corroborado por la experiencia de cada uno de los militantes de nuestra Organización, quienes como bien sabe Vd., pagan con sus propios años de lucha y cárcel y aún con su propia vida su

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.



Euskadin Abuztuak 17, 1.991

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.



Euskadin, 1.991-ko Abuztuak 17

representa oportuna contra la Policía le acarrearía consecuencias



Euskadin, 1990eko Urriak 28

Confinados

JESÚS PRIETO MENDAIZA

Antropólogo y colaborador del Centro de Ética Aplicada de la Universidad de Deusto

Quizá recordar lo que debieron padecer los hombres y mujeres secuestrados por ETA pueda ayudarnos a llevar mejor nuestra confortable reclusión

Desde el día 15 de marzo estamos confinados en nuestro domicilio. Ya más de cinco semanas encerrados, con televisión, ordenador, el frigorífico lleno, libros, servicios sanitarios, ducha, bicicleta estática, terraza o balcón y, lo más importante, cerca de nuestros seres queridos, lo que hace que nuestros afectos también se vean correspondidos. Bien, pues a pesar de ello numerosas personas manifiestan estar ya agotadas, cansadas, hastiadas del confinamiento y muchas de ellas aseguran que sueñan con el día en que puedan por fin salir a la calle, que esto es una tortura.

Ciertamente, nadie puede negarlo, una medida tan drástica como es la reclusión obligada no es agradable para ningún ciudadano. El ser humano necesita sentirse libre y si bien una reclusión voluntaria durante unos días puede ser positiva, incluso resultar sanadora para el espíritu o creadora para el artista, si es forzada se percibe con sufrimiento y dolor. Casi inconscientemente he pensado en lo que debieron padecer todos aquellos hombres y mujeres (sólo se conoce el caso de una mujer, Mirentxu Elosegui, hija del conocido propietario de Boinas Elosegui de Tolosa) que fueron secuestrados por ETA.

Desde 1970 (año en el que secuestró a José Ángel Aguirre, director del Banco Guipuzcoano en Elgoibar) hasta 1997 (inolvidable secuestro y posterior asesinato de Miguel Ángel Blanco), la banda terrorista arrebató la libertad a 86 personas. Seres humanos, padres, hermanos, hijos de alguien que los quería; previamente sometidos a un lento proceso público de deshumanización mediante el bombardeo de insultos, pintadas o pasquines: español, colaborador, explotador, usurero, enemigo del pueblo... para luego ser encerrados, torturados, extorsionados, liberados con un tiro (en 14 casos) o, en el peor de los casos, asesinados (diez lo fueron).

Todavía duele escuchar el relato de Ja-



JOSÉ BARROLA

me Caballero, gerente de Papelera del Oría, secuestrado el 10 de diciembre de 1986 y liberado el 7 de febrero de 1987: « (...) estuve 59 días secuestrado. Han pasado doce años desde aquello (...) la única secuela es la falta de sueño, me lo trastocaron. Los médicos me dijeron que tomara pastillas y de vez en cuando les hago caso. El secuestro me alteró el sistema nervioso. Ahora ha sido el aniversario de mi secuestro. Le pregunté a mi hija si se acordaba y me dijo que sí, pero que no había querido decirme nada. Cuando sucedió aquello, ella tenía 13 años. Todos los días paso por delante de mi zulo, lo tengo enfrente de mi empresa, desde mi oficina lo veo (...). De ancho justo pegaba con los codos en los laterales, de largo entraba un colchón de unos dos metros y de altura unos dos metros, un cajón. Yo no caminaba nada (...) con lo que me gusta andar e ir al monte, pero allí dentro no. Tenía la luz encendida todo el día y música las veinticuatro horas del día. No la quitaban para que no oyera los ruidos de la fábrica. Me pasaban periódicos

recortados, crucigramas y alguna lectura. Al principio pasé mucho miedo, me intranquilizaba pensar qué iba a ser de mí. Luego tuve mucho tiempo para pensar, las veinticuatro horas del día (...). Me cuidaban tres personas. Había de todo, como en la vida. Uno de mis secuestradores se portó bien, uno regular y el otro muy mal, me contestaba muy despectivo (...). Perdí la noción del tiempo. Un día me anunciaron que las cosas iban bien y que en cualquier momento (...). Me dejaron atado a un árbol». (Cristina Cuesta, 'Contra el olvido', 2000).

La palabra vasca 'zulo' fue incorporada al diccionario de la RAE como lugar de secuestro, hábitculo pequeño dispuesto para encerramientos ilegales. ¡Qué triste aportación al acervo lingüístico español! Lugar oscuro, subterráneo, cerrado, húmedo, insalubre... un lugar para la tortura, sí, para la tortura. Además de las denunciadas prácticas utilizadas por determinados servidores del Estado en su lucha espuria contra el terrorismo, hemos olvidado que ETA también torturó en sus tenebrosas 'checas' Secuestrados, enterrados en vida, en gran parté pertenecientes al empresariado, que como refleja Izaskun Sáez de la Fuente ('Místicas del terror', 2017) sufrieron «una forma particular de violencia, la extorsión económica, con el fin de convertirlos en financiadores forzados de la actividad mortífera de quien los extorsionaba». Cosme Delclaux pasó encerrado 232 días, 342 José María Aldaya y el cautiverio de Ortega Lara, el más largo de ETA, se prolongó durante 532 días. Días de rapto, chantaje, humillación, lágrimas, temor, soledad impuesta, entre olor a orines y heces, a golpe de pistola y ración de anestésico. Muchos de ellos se recuperaron de sus heridas, físicas y psicológicas, pero otros muchos arrastran duras secuelas desde entonces, así como sus familiares.

Quizás recordarles, y con ello su sufrimiento, pueda hacernos llevar mejor nuestro actual y confortable confinamiento.

BESTEAK

Egiatzatu ahal izan duzu terrorismoaren biktimek ez dutela legez kanpoko erantzunik babestu. Badakizu, halaber, erakundeek giza eskubideak errespetatuz jardun behar dutela beti. Eta zer gertatzen da gizartearekin bere osotasunean?

NOLA ERREAKZIONATZEN DUGU TERRORISMOAREN ETA HAREN BIKTIMEN AURREAN?

Duela 2000 urte baino gehiago, Aristoteles edo Platon bezalako greziar filosofoek beharrezkotzat jotzen zuten pertsonak heztea "behar diren gauzekin" sufritzeko edo pozteko. Poztu egiten gara ekintza terroristekin, goibeldu eta enpatizatu haren biktimekin ala axolagabe geratzen al gara?

HERRITARREN ERANTZUNA


Beste prentsa ebakin hau Jesús Prieto antropologoaren iritzi artikulu bati dagokio, ETAK egin-dako bahiketak gogora ekartzen dituena.

2018an desegin zen arte, 86 pertsona bahitu zituen ETAK. Horietako hamar erail egin zituen, eta hamalauk tiroak jasan zituzten hanketan. Biktima gehienak erakundea eta haren atentatuak finantzatzeko estortsionatu zituzten arren, beste batzuk ere bahitu egin zituzten enpresei edo erakundeei presioa egiteko, erabaki jakin batzuk har zitzaten. Zerrenda horren barruan daude, besteak beste, José María Ryan Estrada, 1981ean bahitua, eraikitzen ari ziren zentral nuklear baten itxiera eskatzeko; Alberto Martín Barrios, farmaziako kapitaina, 1983an bahitua, epaiketa bat eteteko eta komunikatu bat irakurtzeko eskatzeko; eta Miguel Ángel Blanco Garrido, Ermuko Udaleko zinegotzia, 1997an bahitua, taldeko presoak Euskal Herrira hurbiltzeko eskatzeko. Guztiak erail zituzten.

Ryanen bahiketa eta erailketak ekintza terrorista baten aurka egindako lehen greba orokorra eragin zuen Euskal Herrian. Blancorena mugarri bat izan zen herritarren mobilizazioan, gaitzespenezko ehunka ekitaldi egin baitziren Espainiako geografia osoan zehar, milioika pertsonen parte hartzearekin. Baina, une jakin batzuk kenduta, denbora luzean zehar ohiko erreakzioa beldurra edo axolagabekeria izan zen, eta protesta publikoa biktimen hurbilekoek egindakora mugatzen zen soilik.

80ko hamarkadan, egoera hori aldatzen hasi zen, terrorismoa arbuizatu zuten erakunde zibikoak agertu baitziren, eta gaitzespenezko kontzentrazio publikoak deitzen zituzten. Manifestazio ia horiek guztiak isilak izan ziren, eta beti baketsuak.

1993an, milaka pertsona lazo urdin bat eramaten hasi ziren papar-hegalean, Julio Iglesias Zamora industrialariaren bahiketa salatzeko. Lau erakunde bakezalek eta biktimaren enpresako langileek antolatu zuten ekimena, eta gatibualdiak iraun zuen 116 egunetan mantendu zuten. A forma duen lazo hau (Askatu-tik eta Askatasunetik datorrena) José María Aldaia, José Antonio Ortega Lara, Cosme Delclaux eta Miguel Ángel Blancoren bahiketetan erabili zen berriro.



Zulo honetan eduki zuen ETAk giltzapetuta José Antonio Ortega Lara espetxeetako funtzionarioa 532 egunez. Argazkia: Diario de Burgos.

🔊 **ENTZUN** José María Aldayaren adierazpenak bere bahitzaileei egindako epaiketan: https://cadenaser.com/ser/2006/11/24/espana/1164329416_850215.html

Bahiketek iraun zuten denborari eta pertsona horiek atxikitzeko balio izan zuten lekuen ezaugarriei buruzko zenbait datu.

BAHITUTAKO PERTSONA	BAHITURIK EGONDAKO DENBORA	BAHITUTA EGON ZEN LEKUAREN NEURRIAK		
		IZENA	EGUNAK	LUZERA
Julio Iglesias Zamora	116	1,8 M	1,6 M	1,8 M
José María Aldaya Etxeburua	341	3,0 M	0,9 M	1,8 M
José Antonio Ortega Lara	532	3,0 M	2,5 M	1,8 M
Cosme Delclaux Zubiria	232	3,0 M	1,5 M	1,8 M

1. taula. Geuk egina



Erreportajearen irudia Lazo urdina piztu zuen bahiketa Argazkia: El Diario Vasco.

PROTAGONISTAK

Biktimikiko enpatia eta elkartasuna batzuetan arriskutsuak dira. Terroristek egindako bahiketak gaitzesteko lazo urdina zeramaten pertsonak, askotan, inguru terroristaren jazarpenaren helburu bihurtu ziren, eta irainak, laidoak, mehatxuak eta eraso fisikoak jasan behar izan zituzten.

Gesto por la Paz en erreportajea:
<https://youtu.be/usSC7y92Mgo>

«Lazo urdinak bakoitzaren konpromiso pertsonalean maila bat gehiago igotzea ekarri zuen. Kontua ez zen manifestazio handi batean gure presentzia diluitzea, ezta Gestoren edozein kontzentrazioan ere, baizik eta askatasunaren pankarta gure gorputzaren gainean eramatea, une oro eta argi eta garbi».

Ana Rosa Gómez, boluntarioa



Bizitzeko eskubidea, hain zuzen,
nabarmen gorai patuz

Terrorismoak beti bilatzen du bere ekintzen publizitate-rik handiena bere helburuak lortzeko, baina arreta berezia jartzen du biktimak gizakiak direla ahazteko. Biktimak beste batzuen erabakiz bidegabeki sufritu duten pertsonak direla "ezabatu" behar da oroitzapen kolektibotik. Horretarako, ez du zalantzarik: bahitu egiten ditu, eta "fedegabe" izatea leporatzen die, terrorismo jihadistak egiten duen bezala; deuseztatu egiten du haien giza izaera, eta ahanztura lantzen du, gertaerak ezkutatu, baita haien oroitzapenari eraso eginez ere, hilobi-profanazioen bidez edo haien oroimena iraurazten duten espazioen aurkako erasoak eginez.

Cristina Cuestak 20 urte zituen ETaren gertuko komando autonomo batek bere aita, Enrique Cuesta, telefono-enpresa bateko zuzendaria, eta Antonio Gómez eskolta erail zituenean, Donostian, 1982an ... Urte batzuk geroago, inguru terroristak eragin nahi izan zion isolamendu sozialaren berri eman zuten:

<https://www.youtube.com/watch?v=4QhrfEBVWAI> (desde 4'52" hasta 5'36").

IRUDIA

2004ko martxoaren 11ko atentatu jihadistaren ondoren Pablo Torres Guerrero argazkilaria hartu zituen Atochako geltokiko irudi sortak, egileak adierazten duen bezala, drama eta adiskidetasuna, izugarriena eta eskuzabalena nahasten dituzten eszena txiki askoren puzzlea osatzen dute.

Hurbileko zentro mediko bateko erizain bat atentatu terroristaren biktimak artatzera joan zen, eta honela deskribatu zituen une haiek: "Zonbiak bezala zihozten, kearen eta erre usainaren artean, odoletan, arropak txikituta, begirada galduta, negarrez, batzuk beren mugikorraren zenbakiak markatzen saiatzen ziren, beren familiei abisatzeko, nire ustez, baina ez zekiten nola egin. Beste batzuek, horietako asko etorkinak, telefono bat eskatzen zuten, familiaz galdetzen zuten..."

Iturria: El País, 2004ko martxoaren 11.

2004ko martxoaren 11ko atentatuaren biktimak laguntza jasotzen. Argazkia: Pablo Torres Guerrero, Reuters.



Mecano taldearen «Otro muerto» abestia, hain zuzen, indarkeria bidegabearen biktimekiko sentikortasunik ezaren salaketa gisa interpretatu dute, indarkeria terrorista barne.

OTRO MUERTO (MECANO)

Otro muerto, otro muerto

Qué más da

Si está muerto, que lo entierren y ya está

Otro muerto, pero no es sin ton ni son

De momento se acabó la discusión.

Yo no sé, ni quiero

De las razones

Que dan derecho a matar

Pero deben serlo

Porque el que muere

No vive más, no vive más.

Otro muerto, pero qué bonitos son

Calladitos, sin querer llevar razón

Otro muerto, pero tiene su porqué

Algo ha hecho y si no pregúntale.

Yo no sé, ni quiero

De las razones

Que dan...

Abestia hemen dago eskuragarri:

<https://www.youtube.com/watch?v=OEfZn9i-BIQ>



Asociación 11-M de Afectados por el terrorismo (Terrorismoaren Kaltetuen 11-M Elkarte) deritzona 2004an sortu zen Madrilen, terrorismo jihadistak egindako atentatu koordinatuen ondoren. Lau trenetan zeuden bonbek 193 pertsona hil eta 1856 zauritu zituzten. Elkarteak lazo beltz bat du biktimen alde (dolu-seinale gisa), ikur bereizgarri gisa. M-11ko Biktimei Laguntzeko Elkarte bezala, bere jardueraren zati handi bat hura gogoratzera ez ezik, laguntza- edo laguntza-lanetarako boluntarioen lankidetzat bultzatzera ere bideratuta dago.

<http://asociacion11m.org/como-puedes-ayudar/acompanamiento>

Azken bi hamarkadetan, mundu osoan, baina bereziki Asian eta Afrikan, areagotu egin da ideologia jihadistako talde terroristen presentzia, milaka lagun hil eta zauritu dituztenak. Gaur egun, horrelako eta beste mota batzuetako terrorismoa, zoritxarrez, mehatxua da munduko bakearentzat. Horregatik, 2017an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak erabaki zuen abuztuaren 21a Terrorismoaren Biktimak Oroitzeko eta Omentzeko Nazioarteko Eguna izendatzea, terrorismoaren biktimei ohore egiteko eta babesa emateko. *<https://www.un.org/es/events/victimsofterrorismday>*

2011n Espainian onartutako Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako Legeak adostasun parlamentario handia lortu zuen. Biktimak aitortzea, errespetatzea eta haiei elkertasuna adieraztea du helburu. Lege horren ondorioz, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Nazionala sortu zen *<http://www.memorialvt.com>*, biktimek gorpuzten dituzten balio demokratiko eta etikoak zaintzeko eta zabaltzeko, oroimen kolektiboa eraikitzeko eta gizartea giza eskubideak defendatzeko beharraz kontzientziatzeko.

Terrorismoak gorrotoa behar du, baita axolagabekeria ere. Azken hori saihesteko, oroimena, justizia eta egia babesteko eta biktimak erreparatzeko, elkarteek eta erakundeek norabide anitzetan lan egiten dute.



GOGOETA-JARDUERA

António Guterres Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Terrorismoaren Biktimen Nazioarteko Egunaren aurkezpenean, biktimei «bakarrik ez daudela» erakusteko konpromisoa hartzeko eskatu du. Begiratu arretaz Pablo Torresen 2004ko Madrilgo atentatuen irudia. Zer lotura du NBEko idazkari nagusiaren hitzekin?

Ikusi al duzu inoiz zure sare sozialetan terrorismoaren biktima baten aurkako mezu iraingarririk? Nola erreakzionatu duzu?

JARDUERA: NIRE ERREPORTAJEA

Zure lana, orain, zure erreportaje propioa egitea izango da. Laburra eta zuzena izan beharko du. Terrorismoaren biktimak protagonista dituen kontakizun grafikoa, ikus-entzunezkoa, ahozkoa edo idatzia izan daiteke. Helburua zehazteko gako asko dituzu, eta, gainera, hainbat dokumentazio-iturri, besteak beste, orri hauetan agertu direnak.

4.

SAIOA

AZKEN

LANA



ETA NI?

Saio hauetan zehar, praktikatik, gizaki guztiok ditugun eskubideak ezagutu dituzu, baita haien urraketak gertatu diren kasuak ere, norbait ekintza terrorista baten biktima denean bezala.

Orain, egindako erreportajeak, haien ekoizpena, kalitate estetiko eta jendearengana iristeko gaitasuna baloratu behar-ko dituzu. Adierazi lan horietan aurreko saioetan landutako gai garrantzitsuenak kontuan hartu diren:

- Terrorismoaren biktimak al dira erreportajeko protagonistak?
- Erreportajeak salatzen al du jasandako indarkeria eta lotzen al du GEAUrekin?
- Justifikaziorik ematen al dio jasandako indarkeria horri?
- Elkertasuna adierazten al die biktimei?
- Biktimen inguruan zerbait positiboa proposatzen al zaie erreportaje hau irakurri, entzun edo ikusten duten pertsoneri?

PROPOSAMEN HONI BURUZKO AZALPEN LABUR BAINA BEHARREZKOAK

Giza eskubideei, terrorismoari eta haren biktimei buruzko proposamen didaktiko hau hiru edo bost lan-saiotan gara daiteke DBHko 4. mailako ikasleekin, Balio Etikoen arloan. Horretarako, indarrean dauden curriculum gidalerroak hartu dira kontuan, baita hainbat gogoeta eta orientabide ere. Oso modu berezian eta laburtuan, lan honetan zehar honako hau lortu nahi izan da:

GEAUren eta eta bertan jasotako eskubideen garrantzia balioestea.

Giza eskubideen garrantzia azpimarratzea, haien urraketak jasan dituztenen lekukotza zuzen eta hurbilen bidez.

Terrorismoa terroristei protagonismoa eman gabe azaltzea.

Bidegabeko indarkeria horren deslegitimazioa bultzatzea.

Biktimekiko enpatia eta elkartasuna sustatzea.

Giza eskubideen ezagutza elkartasunezko ekintza batean amai dadin bultzatzea.

Jakintza kognitiboak eta prozedurazkoak eta jarrerazkoak konbinatzea.

Dinamika gogoetatsua, parte-hartzailea eta dialogikoa bultzatzea.

Ikaskuntza aktiboa bultzatzea, egungo teknologiak erabiliz.

Hizkera erraza eta inklusiboa erabiltzea.

ERREFERENTZIAK

Arteta, I. (2013, ekaina, 26). Antonio Morenoren, Fabioren aitaren, adierazpenak, *Trece entre mil*. https://www.documaniatv.com/politica/trece-entre-mil-video_9ef0fda5e.html (1:12:58).

Gesto por la Pazi buruzko dokumentala. (2019, ekaina, 4). <https://youtu.be/usSC7y92Mgo>.

Etxeberria, X. (2011ko otsailak 26). *El Correo*.

Gómez, A. R. (2013). *Un gesto que hizo sonar el silencio*. (36. or.). Euskal Herria, Espainia: Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria.

Innerarity, D. (2011ko azaroak 21). *El País*.

Marrodán, J., Araluce, G., García de Leániz, R., Jiménez, M. (2013). *Historia del terrorismo en Navarra. 1960-86* [Relatos de Plomo]. Nafarroa, Espainia: Nafarroako Gobernua.

Moreno, A. (2016, azaroa, 7). ETBk Alex Morenori egindako elkarrizketa: Nire gurasoek gorrotorik gabe hezi naute. Hemendik berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=aoBebocEuqU>.

Unzueta, P. (1996ko abuztuak 25). *El País*.

BALIO ETIKOETARAKO
UNITATE DIDAKTIKOA

DBH 4

